



34/2019 EBAZPENA, ABENDUAREN 26KOA, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIEN KIDEGOKO EUSKAL FILOLOGIAN LIZENTZIATURAKO AUKERAREN LAN-POLTSA SORTZEKO ETA LANGILEAK SARTZEKO DENA

Gobernu Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren bidez ezartzen dira lan-poltsak eratzeko irizpideak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeko irizpideak ere.

Erabaki horren 1. artikuluan ezartzen denaren arabera, hori aplikatuko da langileak hautatu behar direnean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan beharrezkoak diren aldi baterako zerbitzu-harremanak betetzeko, aldi baterako funtzionarioaren izendapenaren bidez (uztailaren 6ko 6/1989 Legea, 91. artikulua eta hurrengoak), iraupen zehatzeko lan-kontratuen bidez (abenduarien 18ko 2720/1998 Errege Dekretua) edo Gobernu Kontseiluaren 2005eko apirilaren 12ko Erabakiaren babesean egindako txanda-kontratuen bidez.

Haren 4. artikuluan ezartzen denaren arabera, EAEko Administrazio Orokorren kidego, aukera edo eskala eta lan-kategorien arabera eratuko dira lan-poltsak.

H.A.B.E. Autonomiadun Erakundearen Hizkuntzaren Didaktikaren teknikarien hainbat lanpostu betetzeko beharra sortu zen Lanpostuok ezin izan dira bete 2006ko maiatzaren 30eko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren 16 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean ez zegoelako behar espezifiko horri erantzuten zion lan-poltsarik. Hori dela eta, zerbitzuak emateko eskaintza aipatu Akordioaren 19.1.b) artikuluan ezarritako irizpideen arabera egin da, lanpostua irekita dagoen Kidegoetako titulazio talde bereko izan eta lanpostuen zerrendan jasota dauden titulazioa eta hizkuntza eskakizuna betetzen dituzten langileak aukeratuz.

Beraz, Euskal Filologian Lizentziatura edo baliokidea duten langileak aukeratu, eta Goi-Mailako Teknikarien Kidegoko Euskal Filologia Aukeran izendapena egin ondoren, titulazio horri dagokion lan-poltsa sortu behar da, Gobernu Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren 4.1 artikuluari jarraikiz; eta, halaber, lan-poltsan sartu behar dira Kidego horretako izendapenarekin zerbitzuak ematen ari diren langileak, esandako Erabaki horren 24.4 artikuluan jasotakoari jarraikiz.

Kontuan izanda aurretik aipatu den ezohiko kudeaketaren bidez sartu direla, eta lan-poltsa desberdinetatik datozela, horrela jokatu da langileak lan-poltsan ordenatzeko:

Administrazio honetako hautaketa-prozesuetan ezarritako irizpideak erabilgarriak ez direnean, erabiltzen den irizpide orokorra da alfabetoaren arabera ordenatzea, Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariak xede horrekin urtero ematen duen ebazpenaren arabera, 2019 urterako "L" hizkia erreferentzia izan delarik.

Erabaki horretan xedatutakoarekin bat etorritik, egindako zerrenda argitara emango da Administrazioak informazioa zabaltzeko erabili ohi dituen hedabide telematikoetan, lan-politsei eta horien osaera eguneratuari buruzko informazioa eskuragarri egon dadin.

Gobernu Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren 4. artikulua emandako eskumena baliatuz (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko erabakia), hau

EBAZTEN DUT



Lehenengo artikulua.- Goi-mailako Teknikarien Kidegoko lan-politza hau sortzea: Aukera: Euskal Filologian Lizentziatura. Era berean, langileak bertan sartzea, Ebazpen honen Eranskinean jasotzen denari jarraituz.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (www.euskadi.net/lanpoltsak).

Bigarrena.- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak ebazpen honek (www.euskadi.net/lanpoltsak).

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 26a



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA
Funtzio Publikoko Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Función Pública

Andrés Zearreta Otazua

ERANSKINA

Lehen oinarria.- Eratutako poltsa.

Goi-mailako Teknikarien Kidegoko lan-poltsa hau eratu da: Aukera: Euskal Filologian Lizentziatura.

Bigarren oinarria.- Lan-poltsak osatuko dituzten langileak.

Borja Ariztimuño López eta Mikel Hoyos Sein

Hirugarren oinarria.- Hurrenkera eta puntuazioa.
Hurrenkera honetan eta 0 puntukin sartzen dira:

1. Borja Ariztimuño López
2. Mikel Hoyos Sein

Laugarren oinarria.- Arautzea.

Lan-poltsa Gobernu Kontseiluaren 2006ko maiatzaren 30eko Erabakiaren bidez arautuko da (2006ko ekainaren 13ko EHAA). Erabaki horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeko irizpideak ezartzen dira.

Bosgarren oinarria.- Datu pertsonalen babesa.

1.- Lan-poltsa osatzen duen langileari buruzko informazio guztia fitxategi batean sartuko da, zeina bakar-bakarrik erabiliko baita langileak aldi baterako kontratatzeko nahiz bitarteko funtzionarioak izendatzeko erabazten diren lan-poltsak kudeatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz indarrean dauden erabakien bidez arautuko dira lan-poltsa horiek. Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua bi lege hauetan ezarritakoaren arabera izango da: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; eta 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.

2.- Fitxategiaren arduraduna Funtzio Publikoko Zuzendaritza da, eta datuetarako sarbidea izateko, datuak zuzentzeko, datuen aurka egiteko, datuen tratamendua mugatzeko, eta datuok ezerezteko eskubideak erabiltzeko, Funtzio Publikoko zuzendariarengana jo beharko da (Donostia-San Sebastián kalea,1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

3.- 2006ko maiatzaren 30eko Gobernu Kontseiluaren Akordioaren Hirugarren Xedapen Gehiarrian xedatutakoari jarraiki, Administrazio Orokorreko lan-poltsetako hautagaiak



eskatzen dituzten EAEko Administrazio Publikoei eta sektore publikoko entitateei eman ahalko zaizkie datu pertsonalak.

Seigarren oinarria. Argitalpena.

1.- Jarraian adierazten diren helbide elektronikoetan argitaratuko dira bai lan-poltsa bai hura osatzen dutenen zerrenda.

www.euskadi.eus/lanpoltsak

www.ivap.euskadi.eus

2.- Helbide elektroniko horiek iragarki-taula gisa erabiliko dira, informazioa eman eta kontsultak egin ahal izateko.